

26an Hibaika Arraun Elkarteko Gizon Seniorren prentsa-adierazpena

Hibaika Arraun Elkarteko gizonen taldeak abuztuaren 28ko Kontxako Banderaren sailkapen estropadan parte hartuko ez duela zabaldu berri dela-eta, taldeko arraunlariok ondoko prentsa-adierazpena zabaldu dugu gaiaren gaineko azalpenak emateko.

Aurtengo denboraldian, 20 arraunlarik eta bi patroik osatu dugu taldea. Horietatik hamahiru Senior kategoriakoak dira, eta gainontzekoak, berriz, Gazte Mailako lehenengo eta bigarren urteko arraunlariak. Kontxako Banderaren araudiak, gizonen kategoriako arraunlari guzti-guztiak Senior Mailakoak izatea ezinbestekoa jotzen du, patroia kasuan izan ezik; azken hori Gazte Mailakoa izan daiteke.

Hori horrela, arraunlari zerrenda bakarra genuen aukeran sailkapen estropadan parte hartu ahal izateko. Kontxako sailkapen estropadarako izena emanda bagenuen ere, arraunlari senior baten lesioak ezinezkoa egin du aurrera egin ahal izatea hamahiru arraunlari seniorren zerrenda horrekin. Taldeak lehentasuna eman dio, noski, lesionatutako arraunlariaren osasunari, eta hori horrela aurtengo Kontxako sailkapen estropadarako izen-ematea bertan behera utzi du arraun elkarteak.

Hibaikaren zuzendaritza Kontxako Banderaren antolatzaileekin harremanetan jarri bada ere, ezin izan da aterabiderik aurkitu, araudia argia baita gaiaren gainean. Hala ere, gertatutako honek elkarteek, gugandik hasita, ligek eta estropaden antolatzaileek arraunaren egungo egoeraren gaineko kontzientzia hartzeko balio dezan nahi dugu. Izan ere, hainbat izan gara Gazte Mailako arraunlariei esker aurre denboraldian entrenatzeko aukera izan dugun arraun taldeak, edota liga denboraldi betean aritu ahal izateko kirolari-zerrenda Gazte Mailako arraunlariekin osatu dugunok.

Aipamen txikia egin nahi diogu, bestalde, eta eskerrak eman gure entrenatzaile izan den David Iglesiasi. Ikaragarria izan da egin duen esfortzua eta itzela trainerua osatzen dugun guztiongan jarri duen konfiantza, gutariko bakoitzaren onena ateratzeko; entrenatzaile bikaina izatea zer den argi erakutsi digu. Eta hori, aintzat hartuta, aurre denboraldian askotariko oztopo eta zailtasunei aurre egin behar izan diegula. Taldean jarraitzea espero dugu, baita gugatik egin duen guztia itzultzeko aukera izango dugula ere.

Azkenik erakundeei, babesleei, Hibaika Arraun Elkarteari, eta noski gure familiei, zaleei eta Errenteria-Oreretako herriari esker ona adierazi nahi diogu uneoro erakutsi diguten babesarengatik.